



*2010-08-31 Plazaola Partzuergo Turistikoa*

## **TALOAREN EGUNA LEITZAN**

Datorren Irailak 5ean Taloa izango da protagonista Leitzan. Izan ere, beste urte batez, Plazaolako Partzuergo Turistikoa Leitzako Udaletxearen lankidetzaz eta Nafarroako Gobernuako Turismo eta Kultur departamentuaren laguntzaz “Taloaren Eguna” ospatuko du, bertara gerturatzen direnek gastronomia, ohitura eta Herri Kiroletaz gozatu ahal izateko.

Aurten ere, tradizioarekin jarraitzeko, Villabona eta Saralegi izango dira Merkatua irekiko dutenak, eta horien ondoren mota guztietako ekintzak ospatuko dira, artoa, ura eta gatzarekin egindako torta oinarri duten plateren esposizioa, zonaldeko artisauen postuak, taloa egiteko eta baserri tresneriaren erakusketa edo herri kirolak, Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa edo Nafarroako Gizonezkoen Txinga – Erute Txapelketa esaterako.

Bisitariak era aktiboan parte hartzeko ekintzak ere egonen dira, txikientzako taloa egiten ikasteko tailerra, gurdi ibilaldiak edo baserriko animalien erakusketa. Guzti horretaz gain, 100 euroko, 50 euroko eta 25 euroko sariak irabazteko aukera ere egonen da Eskualdeko Talo Lehiaketan, egun berean eta doanik izena emanez.

Gauzak horrela, Irailak 5ean Leitzan mendeetan zehar gure baserrietan oinarritzko elikagaia izan den produktu honen promozio eta berreskurapena sustatuko da, ohiturei jarraituz, egun borobila pasatzeko aukera izango dugun bitartean.

Leitzako Plazan  
Irailak 5  
En la plaza de Leiza  
5 de Septiembre  
**LEITZA**

# TALGAREN EGUNA

## DIA DEL TALO



### 10'00etan Merkatuaren irekiera

- Leitzako Talo-egile (Villabona eta Saralegi) eta artisauak.
- Taloa egiteko eta baserri tresneriaren erakusketa.
- Baserriko animalien erakusketa.
- Haurrentzat gurdi ibilaldiak.

### 11'00etatik Ekintza gastronomikoak

13'30etara

- Eskualdeko Talo Lehiaketa: lehenengo 3 sailkatuentzat sarriak banatuko dira kirolak bukatu ondoren.
- Taloarekin egindako plateren erakusketa, Zonaldeko jatetxe eta tabernek egindakoak: Musunzar, Peritza, Txoko, Elosta eta Lekuenberri ostatuak.
- Taloa egiteko tailerra (4-14 urte).

### 12'00etan Herri Kirolak

- Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa.
- Nafarroako Gizonezkoen Txinga-Erute Txapelketa.

### 10'00 Apertura del Mercado

- Puestos de elaboración de Talos (Villabona y Saralegi) y artesanías.
- Exposición de utensilios relacionados con la elaboración del talo y el caserío.
- Exhibición de animales de caserío.
- Paseos en carro para niños.

### 11'00-13'30 Actividades gastronómicas

- Concurso de talos de la zona: se entregaran los premios para los 3 primeros clasificados después del Deporte Rural.
- Exposición de platos preparados con Talo a cargo de restaurantes y bares de la zona: Musunzar, Peritza, Txoko, Elosta y Lekuenberri.
- Taller para hacer talos (4-14 años).

### 12'00 Exhibición de deporte rural

- Campeonato de Euskal Herria de Jóvenes Aizkolari.
- Campeonato Navarro de Txingas masculino.

Antolatzailea  
Organizador:



Babelea  
Patrocinador:



Laguntzaileak/ Colaboradores:



